

# “Eguneroko bizitzan kirola eginez atsegin hartuko duten pertsonak nahi ditugu”

**LEZO HERRI ESKOLA INSTITUTUAK** ESKOLA KIROLA KUDEATZEKO "MODALITATE" BERRI BAT JARRI DU ABIAN, LEHIAKETAZ HARAGO, KIROL JARDUERAREN BESTE HAINBAT ALDERDI LANTZERA BIDERATUA



Jokin, Pili eta Itxaso

### Un trabajo en equipo

No cabe duda que la concepción del deporte escolar que tienen en Lezo herri eskola institutua es diferente a la que tienen en otros centros, pero también es verdad que como ellos dicen sin medios económicos no hubieran podido llegar a estar donde están. En la actualidad cuentan con cinco personas contratadas para el deporte escolar, coordinador de moni-

tores induido, que se dedican a que el alumnado disfrute practicando cualquier deporte y alejados del aspecto puramente competitivo del mismo porque su lema es: "queremos hacer personas que luego disfruten haciendo deporte en su vida normal, que lleguen a una edad adulta y sigan practicándolo y disfrutando con esa práctica".

**A**urreko ikasturtean, Lezo herri eskola institutuak esperientzia berri bat jarri zuen abian, eskola kirolari lotua, eta ikastetxean jarduera hori goitik behera aldatu zuena. Ordura arte, Gipuzkoako ikastetxe gehienetan bezala, eskola kirola boluntarioek kudeatzen zuten, inolako soldatarik jaso gabe, "dirurik ez zegoelako" nagusiki. "Asko laguntzen zigun aita batek, libre zituen ordu guztiak jarduera horri eskaintzen baitzizkion, eta bagenituen begiraleak ere, baina urtetik urtera aldatu egiten ziren, jakina, ordain ekonomikorik jasotzen ez zutelara eta", azaldu du Itxaso Brizek, ikastetxeko heziketa fisikoko irakasle eta, lankideekin batera, sistema berriaren sustatzaile denak. Halako batean, heziketa fisikoko irakasleek planto egin zuten, nolabait esateko; izan ere, beren iritzian, eskola kirolak hezkuntzaren alderditik zer landu asko zuelako eta ordura arte gauzak egiten ari ziren moduan nekez landu ahal izango zituztelako alderdi horiek. "Zorionez, ikastetxe publiko hau bakarrik zegoen herrian, eta Oarsoaldea eskualdeak ere asko lagundu digu, ez baita erabiltzen ohiko sailkapen sistemarik, ez baita prentsara ezer ere bidaltzen...; horrek guztiak asko laguntzen dio gure ikastetxeko eskola kirolaren funtzionamenduari", nabarmendu du Pili Azpeitiak.

### KIROL BATZORDEAREN BILERA BAT HILEAN

Ikusitakoak ikusita, eta nora iritsi nahi zuten oso garbi zutelarik, haurrei kuota igo zieten, eta eskola kirola koordinatzeko begirale bat kontratatu ahal izan zuten, Jokin. Era berean, kirol batzorde bat sortu zuten; batzorde horretako kide dira ikastetxeko gurasoen ordezkariak; Jokin, begiraleen koordinatzaile den aldetik; eta Pili eta Itxaso, heziketa fisikoko irakaslea eta Lezoko Udaleko kirol arduraduna, hurrenez hurren. Batzorde horrek egin zizkien elkarrizketak begirale izateko hautagaiei; gaur egun, begiraleak kontratatuta daude, eta kirol begirale-hezitzaile profila dute. "Garbi genuen gure helburua ez zela kirolari profesionalak trebatzea; eguneroko bizitzan kirola eginez atsegin hartuko duten pertsonak nahi genituen", dio Itxasok.

Ikastetxean sistema berria ezarri zutenetik, aldaketa ikusgarriak gertatzen ari dira: ikasleek ez dute partidak jokatzeko soilik entrenatzen, irakasle eta begiraleekin gaitasunak, jarrerak eta jokabideak lantzen dituzte. "Jarduera fisiko soiletik harago, jolasen eta egoera jakinen bidez jarduera horren beste mila alderdi lantzeko entrenamenduak egiten dira", azaldu du Jokinak, eta adierazi du oso pozik dagoela gazteek emandako erantzunarekin eta hartutako jarrerarekin; horregatik, datozen ikasturteetan ere horrelaxe jarraitzeko deia egiten die. ♣